



—Horiek ni bezalako kakapirrientzako gauzak dira.  
—Arrazoi du. Bere onerako bada, egin dezala  
—defendatu zuen Enarak.

—Bere onerako eta ingurukoen onerako, fijo! —zi-rikatuz, Zurik—. Oooooommm.... —hasi zen hatzak elkartuz eta goranzka jarritz. Taxi gidariak irribarre egin zuen, eta neskak ere barrez lehertu ziren.

Erikek utzi zien estudioa igogailurik gabeko seigarraren solairuan zegoen. Lehertuta iritsi ziren.

—Ze arraio sartu duzu maletan? Danel? —esan zion Zurik.

—Ba etorri nahi zuen, baina hau nesken *trip* bat dela esan nion —azaldu zien Junekek.

—*Trip* bat?

—Ingelesa praktikatzen nabil.

—Zuek honezkero primeran arituko zarete ingelesez, ezta? —Enarak.

—Moldatzen gara, bai.

—Moldatu? Ba al dakizue Zuri noiz ohartu zen arazorik ez zuela? Eztabaida bat ingeles hutsean izateko gai izan zenean! —aitortu zien Maddik.

—Kontatu, kontatu!

Maletak lurrean utzi zituzten. Zuri, Enara eta Maddi sofan eseri ziren eta June alfonbra gainean.



—Gelako txotxolo batek komuneko paperarekin estali zuen nire takilla.

—Komuneko paperarekin? Zergatik? —Junekek.

—*Miss White* —esan zuen Maddik.

—Ez dut ulertzen... —Enarak.

—Zuri, *white* —azaldu zuen Zurik, gogo txarrez.

Enara eta June mutu geratu ziren istant batez, baina berehala hasi ziren barre-karkaran.

—Aja, oso jatorrak zarete.

—Ez haserretu, maitea... —hasi zitzaion Enara, ilea ferekatzen zion bitartean.

—Sutan jarri zen! Apoak eta sugeak ateratzen ziren Zuriren ahotik eta begietatik.

—Eta nola asmatu zenuen nor izan zen?

—Ba *Miss* eta *Mister* lehiaketa higuingarrietan erabiltzen dituzten banda horietako batekin etorri zitzaidalako.

—*Miss White* jartzen zuen —argitu zuen Maddik.

—Wow! Ze tope amerikarrak diren amerikarrak!

—Junekek.

—Super tipikoak, bai —baieztatu zuen Zurik.

—Zergatik ez goaz gauza amerikar tipiko gehiago ezagutzera? —Enarak, altxatuz—. New York gure zain dago!





—Bai, egia. Etxera lotara bakarrik! —egin zuen oihu Maddik.

—Itxoin! —Junek maleta ireki eta hamaikatxo gauza atera zituen bertatik.

—Zer da hori?

—Hiria ezagutzeko egin dudan ibilbidea. Egunak eman nituen interneten orriak arakutzen. Zer egin bost egunetan New Yorken!

—Baina Maddik eta Zurik ezagutzen dute hiria eta primeran arituko dira gidari lanetan, ezta, neskak?

—Ez al da hobe inprobisatzea? —Zurik.

—Nik ere hala uste dut —Maddik.

—Baina, orduan, egin dudan lan guztia... —June zapuztuta zegoen.

—Denetik egin dezakegu. Tarteka, zure plangintzari jarraituko diogu; beste batzuetan, guk egingo ditugu proposamenak; noizean behin, inprobisatu egingo dugu —bota zuen Maddik.

—Primeran!

—Ados!

—Motxilan sartuko ditut paperak orduan!

—Oinetako erosoak jarri, e!

—Eta ez ahaztu dirua.

—Eta, badaezpada, kleenexak.



—Tiritak hartu ditut nik.

—Jertsea.

—Aterkia?

—Mugikorra...

—Aizue, urduri nago! —aitortu zuen Junek.

—Plan mundiala!!!

Hiria ederra zegoen, koloretsua, jendetsua, zalapartatsua. Etorri berriek begiak eta ahoa irekita zituzten uneoro, horrenbeste aldiz filmetan ikusitakoa aurrez aurre zutenik ezin sinetsita.

—Neskak, botila bat ur eroatera noa —esan zien Enarak, etxe ondoan zegoen denda batean sartzen zen bitartean.

—Zenbat jende bitxi dagoen hemen! —bota zuen Junek, albornoza jantzita eta buruan toalla bat jarrita zeraman pertsona batekin gurutzatu eta gero.

—Dena da posible New Yorken —Maddik.

—Baina horrenbesterako...

—Hiri honetan inori ez zaio inporta zer egiten duzun edo nola zoazen jantzita —Zurik.

—Ei! Ideia bat izan dut! —pozik, Junek.

—Ai ene... beldurra —esan zuen Maddik.

—Goazen mozorrotzera!